



UNITATEA	EUSKARA ETA HEZKUNTZA
XEDEA	LAN-ARLOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatu Miren Garbiñe Marzol Ormazabalena, bat etorrita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela. Geroztik, bi aldaketa izan ditu: bat, GAO, 68. zk., 2023-01-26an, eta bestea, GAO, 89. zk., 2024-05-09an.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2026-2028 Plan Estrategikoan sartua dagoela honako dirulaguntza-lerro hau: Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2025eko azaroaren 7an (GAO, 7. zk., 2026-01-13).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 5.000 euroko zenbatekoa finkatu dela, 2026ko udal-aurrekontuaren 0900.481.02.335.10 partidan.

LAUGARRENA.- Tolosako Udalak, Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuaren 2026/705 Dekretuaren bidez, Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak onartu zituela, lehia bidezko konkurrentzia modalitatekoak, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirela (65. zk., 2026-04-10), zehazki honako hauek:

Deialdiaren izena:	Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak.
Helburua:	Xedea da Tolosako enpresei dirulaguntzak ematea, lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko helburuz.

BOSGARRENA.- Behin eskaerak aurkezteko epea igarota, ez dela batere eskaerarik jaso.

KONTUAN HARTURIK

BAKARRA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola onartutako aurrekontuaren arabera kudeaketa ekonomikoa



TOLOSAKO
UDALA

2026DO100003

garatzea, bere eskumeneko mugen barruan gastuak xedatzea. Tolosako alkateak, 2023/1718 Alkatetza Dekretuaren bidez, arloko zinegotzi delegatuari eskuordetua dio eskumen hori.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

EBAZTEN DU

LEHENA.- Hutsik deklaratzeko Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia.

BIGARRENA.- Deialdiaren 2. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz, deialdian soberan geratu diren 5.000 euroak Establezimendu komertzialetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntzetara bideratzea, deialdi horretan sor daitezkeen beharrei erantzuteko.

Ebazpen hau finkoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, udal-idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL-IDAZKARIA

Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026DO100003-Ebazpena/Ebazpena (TOLOSAKO UDALA)